

Iñaki Imaz, Montaña  
Egia Kultur Etxea, Donostia  
2004ko otsailaren 6tik 28ra

### Montaña hitz hutsa baino gehiago

Iñaki Imazek "Montaña" erakusketan artearen barruko gauza asko zalantzan jarri zituen, edo niri behintzat, arazo askoren gainean pentsarazi zidan. Lehendabizikoa irudien gaineko hausnarketa. *Montaña* izenburuak ez duela ezer esan nahi, dio Iñaki Imazek, erakusketarako aitzakia besterik ez dela eta beste arrazoirik ez dagoela hitz horren erabilpenean. Nik berriz, izugarritzko garrantzia eman diot hitzari. Bidaia katalogo batetik hartutako hitz bat besterik ez denez, irudi bihurtu du artearen eta hizkuntzaren ikur sistemaren gaineko hausnarketa egiteko. Azken hau ez genuke ariketa intelektual hustzat hartu behar, artearen bide eta egiteko berezko moduek bat egiten dutelako erakusketan dauden lan guztietan. Hitzak ikurrak diren moduan, irudiak ere ikurrak direla konturatzen gara, eta zaila da esanahiak zehaztea, testuinguruak kontuan izan gabe. Adibidez, "Montaña" hitza argazki batean azaltzen den ikurra da eta ikur hori pintura bihurtzen da hurrengo artelanean, eta artelan hori bera koadro baten "gai" da beste batean. Infinitura doan bide horretan ez dago hierarkiarik, guztia izan daiteke irudi, baita hizkiak ere, eta horiek duten ahalmen komunikatiboa ez dago batere garbi erakusketan ikusi ondoren. "Iñaki" artistaren izenak ere testuinguru behar du jakiteko zeri buruz hitz egiten dugun, edo agian ez du ezer esan nahi bi zatitan banatzen badugu: "Iña" eta "ki". Gaur egungo irudien saturazioak eta errealtatearen estetizazioak balio aldakorrek edo elkar trukatuak ematen dizkiote irudiari.

Zalantzan jartzen duen beste zerbait estiloa da, artista bakoitzak izan behar duen egiteko era pertsonala, eta honekin batera oso lotuta dagoen artistaren izaera. Erakusketan dauden artelan guztiak ezberdinak dira, bai teknikan bai egiteko eran eta horrela, artistaren mitoa indartzen duen oinarrietako bat, hots, artista bakoitzak emateko zerbait daukala eta koherentea izan behar duela, zalantzan jartzen du. Horregatik artistaren irudia bera zalantzan jartzen duen momentutik aurrera, artistaren zeregina ere ez da oso ziur azaltzen gure begi aurrean, erakusketan dauden artelan batzuk ikusita, berezitasuna eta "genialitatea" apropos suntsitzen baititu. Irudi digitalaren erabilpenari ematen dion trataera ere ez da askotan ikusten gure artean. Badirudi baliabide "berrien" erabilpenak irudiaren inguruko hausnarketa agortu duela, baina Iñakik egiaztatzen digun bezala, zalantzan jartzeko asko dago. Eskuak egiten duen orban beltz organikoak eta pantailatik hartutako emakume ederraren irudiak maila berean daude, ikur bihurtzen diren momentutik aurrera biak dira "Montaña" hitza bezain hutsak eta adierazkorak. Iñaki Imazek Egiako kultur etxean jarri zuen erakusketaren baliorik handiena artearen gaur egungo oinarritzko ideiak zalantzan jartzea da eta horrek, guztia onartzeko ohitura dugun momentuan, ezagupenaren bidea ezer baino hobeto zabaltzen du.

• Ismael Manterola Ispizua



The Night of the Hunter (La noche del cazador) 1955.  
Charles Laughton.

Harry Powell predikatzaileak *Love/Hate* hitzak ditu tatuatuak eskue-tako behatzetan. Gorrotoa eta amodioaren arteko borroka mugitzen du mundua. Gorrotoa eta maitasuna dira pertsona oren bi aurpegiak...

*The Night of the Hunter* AEBetako depresio garaian dago kokatua. Gizarte miserable hartan putzutik ateratzeko edozein trikimailuk balio zuen. Gizarteak, dirua eta boterearen izenean, edozer gauza egin zitekeela onartzen zuen (AEBetako depresio ekonomikoa amaitua zen, baina ondorio moralak oraindik bizi ditugula baieztatzeko egunkariak irakurri besterik ez dago). Filmak bi hitzetan zera kontatzen du: Harry Powell, lapurreta batean ziegakideak lapurtutako dirua non gorde zuen hari aitorrarazi ostean, altxoraren bila abiatuko da, predikatzailez mozorrotuta. Bere helburua betetzeko, ziegakidearen familia buru bihurtu, eta haren emazte eta seme-alaben aitaorde izango da. Irudiari dagokionez, zinema espresionista alemaniarraren eragina nabarmena da. Argi eta itzalen kontraste muturrekoak. *Love/Hate*. Film honetan ordea, zuzendariak, gauza benetan bitxia lortzen du. Ikusleak film osoan pertsonaia zelatzen dituela sentituko du. Gainera, egungo zinemaren azken orduko amaiera eta efektismoetatik ihes eginez, *The Night of the Hunter*-en amaiera tragiko baten hitzaurrean gaudela sumatzen dugu film osoan; sentsazio horrek amaiera zapuztu ordez, are interesgarriagoa egiten du.

Gidoiaren azaleko sinpletasunak pertsonaien izaera korapilatsua ezkutatzen du. Film osoan, estrukturari dagokionez, haurrentzako ipuin bat ikusten ari garela dirudi (bi haurren ihesaldiak Hansel eta Gretel ekartzen digu gogora); berehala konturatuko gara pertsonaia guztiek horren simplea ez den zerbait ezkutatzen dutela. Film osoan sumatzen da *Love/Hate* hitzak tatuaje soil bat baino gehiago direla, pertsona orok barnean bizi duen borrokaren isla direla. Horregatik erakartzen gaitu hainbeste film honek. Horregatik liluratzen gaitu Powell-Mitchumek. Horregatik desio dugu, azken momentuan bada ere, ezinezkoa dela jakinda ere, *Love* aldarrikatzen duen eskumuturrak irabaztea.

*The Night of the Hunter* film berezia izan zen gainera, bere garaian, estreinatu zenean, porrot egin zuelako. Porrotaren arrazoirik ezin asmatu, ordea. Genero baten irmotasunik eza, beharbada. Thriller-aren aitzindaria dela ere esan da eta garai hartako ikusleak ez zeudela prest halako zama psikologikoa zuen kontakizuna ikusteko, elizaren itxurakeria eta gizartearen miseria agerian uzten zituelako, heroirik ez zuelako... arrazoi ugari aipatu izan da. Askotan idatzi da film honen porrotaren inguruan, baina egun, ordea, inork ez du zalantzan jartzen *The Night of the Hunter*-en balioa.

Porrota eta arrakasta, *Love/Hate* tatuajeen moduan, borroka beraren bi alde besterik ez dira. Batak ezinbestekoa du bestea existitzeko. Kasu honetan, beste hamaika kasutan bezalaxe, filmaren kritika txarrekin porrot ekonomikoa begirada propioa izan zuen zuzendari baten ibilbidea moztu zuten. Charles Laughtonek bere lanean sinetsi zuen beti eta filmaren balioa defendatu zuen beti, eta akaso horregatik, Herman Melvillek asmatu zuen *Bartleby*ren bideari jarraitzea erabaki zuen. Kameraren atzealdean ez zela berriro jarriko esan eta emandako hitza bete zuen. Film bakarreko zuzendari bihurtu zen. Eta ziurrenik, jakin gabe, porrotaren apologia egiten jarraitzeko arrazoiak ematen dizkigun maisulan horietako bat filmatu zuen. • Koldo Almandoz